

## Perpaus bakunak eta konposatuak

### Gogoratu

- **Perpaus bakuna**: aditz bakarra duen perpausa.
- **Perpaus konposatua**: aditz bat baino gehiago dituen perpausa.

### 1. Idatzi zenbat aditz dauden perpaus hauetan.

• Argi ona erabili behar da irakurtzeko.	
• Sukaldaria izango banintz, postreak egingo nituzke beti.	
• Arratsaldeetan gitarra jotzen dut seietatik zortzietara.	
• Trenetik jaitsi, kalera irten, eta hantxe aurkituko duzu liburutegia.	
• Handia naizenean, munduko mendirik altuenak igoko ditut.	
• Hamar mila biztanleko muga gainditu du gure herriak.	

### 2. Lotu bi zutabetako esaldiak esaldi konposatuak egiteko.

Berandu oheratzen naiz •	• bihar azterketa daukadalako.
Urduri nago •	• kolorez beteko zait sala.
Arrainak arrantzontzian sartzen baditut, •	• pianista ona izateko.
Asko praktikatzen dut •	• jartzeko argazkiak web orrialdean.
Aitak esan dit •	• futbol-partida dagoenean.

### 3. Zein dira perpaus bakunak (B) eta zein konposatuak (K)? Adierazi.

• Maialenen osaba eskiatzailea da, eta nirea, irakaslea.	
• Berogailua itzaliko bagenu, izoztu egingo ginateke.	
• Anderrek oso indartsua dela uste du, baina gehiago entrenatu behar du.	
• Musika-talde ospetsu bat osatuko dugu.	
• Elur gutxi egin duen arren, Naroaren gurasoak eskiatzera joango dira asteburuan.	
• Baratzean bildu genituen fruituekin konpota egin genuen.	